

Euskararen Hizkuntza Irizpideak

Izarraitz Lanbide Heziketa LHII

Dokumentu honek Izarraitz Lanbide Heziketa LHIIko langileen euskararen hizkuntza irizpideak zehazten ditu:



Barne komunikazioa

- Barneko ahozko eta idatzizko komunikazioak euskaraz egingo dira.
- Bilera eta jardunetan euskara erabiliko da.



Kanpo harremanak

- Guraso, tutore legal, herritar, enpresa, administrazio eta beste eragileekin komunikazioetan euskara lehenetsiko da.
- Ikastetxeak eskaintzen dituen bilera, hitzaldi edo jarduera instituzionalak euskaraz egingo dira. Ulertzen ez duenarentzat “Xuxurlari” figura eskainiko da.
- Ikastetxera datorren edo ikastetxearekin komunikatzen den edonori lehenengo hitza euskaraz egin edo idatziko zaio.
- Ikastetxeak bidaltzen dituen dokumentuak ez dira inoiz soilik gazteleraz bidaliko.



Langileen hizkuntza-gaitasuna

- Euskararen ezagutza eta erabilera sustatuko dira prestakuntza eta motibazio bidez.



Kudeaketa Sistema

- Ikastetxeko dokumentazio ofizial guztia euskaraz sortuko da. Beharrezkoa den kasuetan soilik itzuliko dira dagokion hizkuntzetara.



Irudi korporatiboa eta seinaleztapena

- Kartelak, seinaleak eta material grafikoak euskaraz edo elebitan egongo dira, euskara lehenetsiz.



Webgunea eta sare sozialak

- Webguneak euskarazko bertsio osoa izango du.
- Sare sozialetan euskara izango da komunikazio hizkuntza nagusia.



Hezkuntza jarduera

- Ikasleekin harremanak euskaraz egingo dira. A ereduan ere euskaraz izango da lehenengo hitza, nahiz hezkuntza hizkuntza ofiziala gaztelera izan.
- Material didaktikoa euskaraz eskainiko da, ereduaren arabera.



Prestakuntza

- Ikastetxeak antolatutako langileentzako barne-prestakuntzak euskaraz egingo dira.
- Ikastetxeak antolatutako langileentzako kanpo-prestakuntzak euskaraz egitea lehenetsiko dira.



Tresna digitalak

- Ikastetxeak gailu digitalen ezarpenak euskaraz izatea bultzatuko du.